

IDEKOn Barneko Informazio Kanalaren erabilera

Barneko Informazio Kanalak aukera ematen du IDEKOn Kode Etikoaren aurkako legez kontrako egintza bat edo irregulartasun bat izan litekeen edozein gertaeraren berri emateko. Gertaera horri dagokion ikerketa Barneko Informazio Kanalaren funtzionamendu arauen arabera egingo da.

Organo eskuduna

Barneko Informazio Kanalaren bidez tramitatutako jakinarazpen, informazio eskaera eta kontsulta guztien hartzailea Betetze Batzordea izango da, Barneko Informazio Sistemaren arduradunaren bitartez.

Erabiltzaileak eta komunikatzeko eta lankidetzan jarduteko betebeharra

Barneko Informazio Kanalera sartzea eta Kanala erabiltzea baimenduta dago bai IDEKoko profesionalentzat bai hirugarrenentzat.

IDEKoko profesionalek indarrean dagoen legedia zaindu beharko dute eta Kode Etikoaren aurkako legez kontrako edozein egintza edo irregulartasun jakinarazi beharko dute, holako baten berri daukatenean edo arrazoizko zantzuak daukatenean.

Era berean, Barneko Informazio Kanalaren bidez jasotako jakinarazpenen ondorioz bideratzen diren ikerketetan laguntza eman beharko dute, hala eskatzen bazaie.

Barneko Informazio Kanala ezin izango da erabili sortu denaz bestelako helburuetarako.

Komunikazio kanalerako sarbidea

Barneko Informazio Kanalaren erabiltzaileek kanal horretara sartu eta dagozkion jakinarazpenak egin ahal izango dituzte honako bitarteko hauen bidez:

- Zuzeneko eta/edo hitzezko komunikazioa, Betetze Batzordeko kideren batekin harremanetan jarrita, edo kanaletikoa@ideko.es helbidearen bidez.
- Komunikazio anonimoa, webgune korporatiboan eskuragarri dagoen inprimakia betez. Komunikazioa anonimoa bada, informatzaileak ezin izango du bere jakinarazpenari buruzko erantzunik jaso.

Posta bidezko jakinarazpenak zein jakinarazpen anonimoak Barneko Informazio Sistemaren arduradunak jasoko ditu, eta hark Betetze Batzordeari helaraziko dizkio, behar bezala trata ditzan, informatzailearen konfidentziasuna bermatuz.

Horrek ez du esan nahi, ordea, dagokion jakinarazpena Betetze Batzordearen aurrean aurkezteko aukerarik egongo ez denik.

Konfidentziasuna eta errepresalien debekua

Informatzailearen identitatea informazio konfidentzialtzat hartuko da, eta ezin izango da inolako diziplina neurririk hartu, ez zuzenki, ez zeharka, ezta jakinarazpenaren ondoriozko errepresaliarik gauzatu ere, indarreko araudiaren arabera jakinarazitako gertaeretan inplikaturako pertsonen dagozkien eskubideei kalterik egin gabe.

Ezarritako kanalak ez diren beste bide batzuetatik bidaltzen bada jakinarazpena, edo hura tratatzeko ardua ez duten pertsonen bidaltzen bazaie, IDEKoko profesionalek informatzailearen konfidentziasuna gorde beharko dute eta jakinarazpena berehala bidali beharko diote Barneko Informazio Sistemaren arduradunari.

Komunikazio kanala posta elektronikoa bidez erabiltzea:

e-maila: kanaletikoa@ideko.es

Aurkeztutako jakinarazpenak, gutxienez, honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Informatzailearen identitatea, nortasun agiri nazionala edo baliokidea adieraziz.
- Informatzailearekin harremanetan jartzeko modua (telefonoa, posta helbidea eta/edo posta elektronikoa).
- Salatutako pertsonaren identitatea, izen-abizenak eta, jakina bada, IDEKOn duen kargua adieraziz.
- Jakinarazpena eragin duen gertaera: jakinarazitako jokabidea zein den, zer egunetan gertatu zen, zer bitarteko erabili ziren eta kooperatibaren zein arlori eragin zitzaion, besteak beste.
- Hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren dokumentuak eta frogabideak.
- Lekua, data eta sinadura.

Komunikazio inprimakiaren eredia:

Informatzailearen datuak:

Izena: _____
Abizenak: _____
NAN: _____
e-maila: _____
Telefonoa: _____

Jakinarazpenaren informazioa:

Jakinarazitako gertaeraren deskribapena: _____
Lekua: _____
Data: _____

Inplikaturako pertsonak edo unitateak:

Salatutako pertsona: _____
Inplikaturako beste hirugarren batzuk: _____

Aurkeztutako ebidentziak:

Oharrak:

